

▼ marisol ramirez / argazki press



Manu Cordero

Kremlin kultur aretoaren sustatzailea

«Kremlin gaztea, independentea eta gorria izango da»

Bilbok duen kultur eskaintza zabalak baditu hutsuneak. ☞ Musika talde eta artista hasiberriek ez dute beren proposamenak jendaurrean aurkezteko aukera handirik. ☞ Horri aurre egiteko, Manu Cordero gazteak Kremlin aretoa ireki nahi du. ☞ Dena ondo badoa, udan zabalduko ditu ateak aretoak. ☞ Bitartean, Bilbo inguruko hamasei musika talde berriren abestiak jasotzen dituen CD bat kaleratu du.

U mikel lizarraide

Aukera gutxi dituztenen kultur eta arte adierazpenak bultzatu nahian, Manu Cordero gazte bilbotarra Kremlin kultur aretoa sortzeko zurrunbiloan sartuta dabil azken hilabeteotan. Oraindik ez daki noiz irekiko duen, baimenak lortzeko oztopoak jarri baitizkiote; baina Bilboko Aste Nagusirako Kremlinen ateak zabalik ikusi nahiko lituzke. Kultur aretoa 2 de Mayo kalean kokatua egongo da, eta 150 bat lagunentzako ikuskizunak eskainiko ditu.

■ **Zer dela-eta erabaki duzu kultur areto bat sortzea?**

Oinarrian, gaur egun ez dago Bilbon musika taldeei zuzenean jotzeko aukera emango dien areto profesionalik. Kanpoko taldeek jotzen dute leku batean edo bestean, baina bertako taldeek, maketa bat besterik ez dutenek, berriz, ez dute inongo aukerarik. Gaur egun Bilbon

dauden aretoek maila bateko kontzertuak eskaintzen dituzte, eta bertako talde hasiberriek, inork ezagutzen ez dituztenek, etxean gelditu behar dute.

Eta hori ez da musikaren alorrean bakarrik gertatzen. Erakusketak, antzezlanak... dena zaku berean sartzen da.

■ **Hainbat kultur adierazpen motatarako aretoa izango da, beraz, Kremlin?**

Bai, ez dut gauza batera mugatu nahi, eta, musikaz gain, erakusketak, pintura eta argazkilaritza erakusketak, hitzaldiak eta bestelako emanaldiak ere izango dira.

■ **Gaur egun Bilbo Zaharreko Argia tabernan aritzen zara. Orain arte izan duzu harremanik kultur munduekin?**

Arte Ederretako ikasketak egiten hasi nintzen, eta argazki-

laritzan eta diseinuan ere aritu naiz. Horretaz gain, musika talderen batean ere jo izan dut, eta badakit zer den hasiberri bat izatea eta aukera gutxi izatea.

■ **Zu bakarrik zaude Kremlin proiektuaren atzean. Ez da erraza izango halako egitasmo bat aurrera ateratzea.**

Ez, ez da batere erraza. Urtebete inguru daramatzat ideia honekin, eta arazo ugari izan di-

tut. Egia esan, ideia baino lehenago lokala egon zen. Inguru horretan kultur adierazpenak ugaritzen joan dira, eta gero eta gehiago indartzen ari da, eta hortik sortu zen kultur areto bat sortzeko ideia

■ **Aretoak ildo jakin bati segituko dio programatzeko orduan, edo irekia izango da?**

Niri berdin zait musika emandialdiak estilo batekoak edo bestekoak izatea, baina baldintza bakarra bete beharko dute: areto handiagoetan jotzeko aukerarik ez izatea. Aretoaren filosofia, azken batean, hori izango da: beste leku batzuetan jotzeko aukera ez dutenei aukera ematea. Horretaz gain, hasiera batean, Bilbo inguruko eta Euskal Herriko taldeek izango dute lehentasuna.

■ **Nabaritu duzu artisten aldetik halako areto baten beharra?**

Bai, gabeziak nabariak dira. Nik neuk ere pasatu izan dut hori, argazkilari afizionatua izanik ez dudalako erakusketarik egiteko aukerarik. Eta musika talde batean ere aritu naiz eta ez dut jotzeko ia aukerarik izan. Badira taberna txiki batzuk eta beste areto batzuk, baina halako ezaugarriak izango dituen aretorik ez dago. Eta ideien berri izan duten guztiek hau aurrera ateratzeko izugarrizko go-goa dute.

■ **Noizko egongo da Kremlin aretoa zabalik?**

Zabaltzen uzten didatenean. Urtebete inguru daramatzat arazo burokratikoekin, eta baimen guztiak noiz izan zain nago. Hortik aurrera, hiruzpatalau hilabete beharko nituzke. Hori dela eta, gustatuko litzaidake udarako irekitzea, baina ez dago nire esku. Aretoak taberna izango du, hori delako iraunbizitzeko bide bakarra, eta dirudienez, Udalak ez du taberna gehiagorik nahi, nahiz eta nik eskaini behar dudana kultur areto bat den. Hori dela eta, oztopo ugari jarri dizkirate eta borrokatzen ari naiz.

■ **Kremlin izenak kutsu gorria du. Hori izango da aretoaren izaera?**

Izen deigarria da, eta aretoaren ideologia nahiko ondo islatzen du. Aretoa gorritik sortzen da, eta, ondorioz, aretoaren itxura ere horri lotuta egongo da. Mende hasierako Errusian oinarrituta egongo da aretoa. Horretaz gain, 80ko hamarkadako gaztetxeen izaera izango du. Gaztea, independentea eta gorria.

■ **Gaztetxeen izaera izango du Kremlinek?**

Gaztetxeen espiritua izango du, baina legearen barruan egongo da, gaztetxe ugari itxi dituzten bezala itxi ez dezaten. Horretaz gain, independentzia izango du era guztietako jendeari zabaltzeko.

Bilbo Handiko taldeak CD batean

Kremlin aretoak ez ditu oraindik irekiko ateak, baina bere lehenengo ekoizpena kalean da jada. Bilbo eta bere inguruetako hamasei talderen kantu bana jaso eta aretoaren izen bera duen CD batean bildu ditu Manu Corderok. «Taldeen eta nik elkarrekin landutako proiektu bat da. Nik bilduma prestatu dut, eta aukera eman diet taldeei kantu bana sartzeko; eta beraiek, bestalde, kantu bana eman didate niri aretoaren promozioa egiteko. Nik ezagutera emateko laguntza ematen diet, eta beraiek ere ni laguntzen naute».

Guztira hamasei taldek hartu dute parte CDan. Batzuk Bilbokoak dira, eta beste batzuk ingurukoak: Subliminal, Empty Missell, Ajo y Agua, Shisha Pangma, Woern, Zumo Negro, D'échécs, Kike Mora, Myst, Rockadelika, Waste, Ehiztari Beltza, Nice Family Trip, Ximel, Pna eta E-Virus 69. Diskoa Bilboko dendetan izango da eskura, baina Manurekin harremanetan jartzen denak ere izango du aukera etxean jasotzeko. Harremanetarako salakremlin@hotmail.com